

**Bigarren murrizketa:****Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuak**

1.- Debekatuta dago EAEko bide publiko guztietan, edozein norabidetan, ondoko egun eta orduetan, arriskuaz ohartarazteko arauzko panel laranja eduki behar duten ibilgailuak ibiltzea, Salgai Arriskutsuen Errepidezko Garraioari buruzko Europako Akordioaren (ADR) arabera:

Ordu-tartea	Datak
8:00-24:00	Igande eta jai-egunetan EAE osoan
16:00-24:00	Jai-egunen bezperetan EAE osoan (larunbatak ez badira)

- Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten 7.500 Kg-tik gorako BGM duten ibilgailuei, atal honetan ezarritako murrizketez gain, edozein salgai garraiatzen duen 7.500 Kg-tik gorako BGM duten ibilgailuei buruzko ebazpen honen hirugarren murrizketak dituenak ere aplikatuko zaizkie.

2.- Aurreko puntuan ezarritako debekuetatik salbu daude ebazpen honen III. eranskinean jasotzen diren salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuak, bertan xedatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

3.- Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek egin beharreko ibilbideak. Salgai arriskutsuak errepidez garraiatzeari buruzko Araudiaren otsailaren 14ko 97/2014 Errege Dekretuaren 4.3 artikulua arabera, salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek ondoko ibilbide hauek erabili beharko dituzte:

A) Erabiltzaileei edo kontsumitzaileei salgaiak banatzeko egiten diren joanetorrietan: ibilbiderik egokiena erabiliko da, bide-segurtasunari zein trafikoaren arintasunari begira. Errepide arruntetan zehar ahalik eta distantziarik laburrena egingo da, salgaia eman behar den lekuraino.

Biztanle-guneetatik kanpo ingurabiderik, saihezbiderik edo biribilgunerik badago, derrigor erabili beharko ditu. Horrelako aukera bat baino gehiago izatekotan, biztanle-gunetik urrutien dagoena erabili beharko da. Hirigunean zamalanak egiteko soilik sar daiteke, eta betiere, salgaiak emateko lekutik hurbilen dagoen sarrera erabiliz, ezinbestekoren bat gertatu ezik.

B) Bestelako joan-etorrietan: joan-etorriaren jatorria eta helmuga Salgai Arriskutsuen Ibilbideen Sarearen –SAIS- barruan badaude (ebazpen honen V. eranskinean dago), salgai arriskutsuak daramatzaten ibilgailuek derrigor erabili beharko dituzte euren ibilbidean.



Joan-etorriaren jatorria edo helmuga (edo biak) SAISetik kanpo badaude, sare horretan martxaren noranzkoan eta hurbilen dagoen sarreratik sartzen uzten duten errepide arruntetatik egin beharko dira joan-etorriak, galtzada bakarreko bideetan egiten den ibilbidea ahalik eta laburrena izatea bermatze aldera. Arrazoi berbera dela bide, salgaien helmugatik martxaren noranzkoan eta hurbilen dagoen irteera erabiliko da SAISetik irteteko. Hemen aipatu diren bideez bestelakoetan ibiltzeko, baimen berezia beharko da, ebazpen honen 3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik emango dena.

SAISetik irten daiteke gidariaren ohiko bizilekura edo handik egindako joanetorrietan, eguneroko edo asteroko atsedendialdiak egiteko edo egiterik, eta ibilgailua konpontzeko edo mantentzeko lanetarako edo garraio-enpresa dagoen lekura sartzeko, betiere, ADRn zehaztutako aparkatze-baldintzak betetzen badira. SAIS uzten den kasu hauetan, gidariaren helmuga den tokitik hurbilen dagoen irteeratik irtengo da.

4.- Aurreko puntuetan xedatutakoa ez da aplikatuko baldin eta, zama mota, kopuru edo garraio mota dela-eta, salgai arriskutsuen garraioa ADRn jasotako 3 salbuespenetakoren baten arabera egiten bada

II. ERANSKINA

SALGAIK, OROKORREAN, ETA SALGAI ARRISKUTSUAK

EAEko errepideetatik 7.500 kg-tik gorako GMBko ibilgailuek murrizketa hauen arabera zirkulatuko dute:

Murrizketa bereziak:

1. Uda garaian.

a)

Ordu-tartea	Garaia	Datak
11:00-14:00	ekainaren 7tik irailaren 7ra	➤ Larunbatak ➤ Igandeak ➤ Jaiegunak

Bidea	Izena	Hasierako K.P.	Amaierako K.P.	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	119,5	139,21 Kantabria	Kantabria



A-1	Madril-Irun	352 N-622 lotunea	336 Trobiñu	Burgos
A-1	Madril-Irun	329Trobiñu	321 Burgos	Burgos

b)

Garaia	Datak
ekainaren 7tik irailaren 7ra	➤ Igandeak ➤ Jaiegunak

Bidea	Izena	Hasierako K.P.	Amaierako K.P.	Noranz koa	Ordutegia
A-8	Kantauriko autobidea	139,21 Kantabria	119,5	Bilbo	16:00 – 22:00
A-1	Madril-Irun	321 Burgos	329 Trobiñu	Gasteiz	16:00 – 21:00
A-1	Madril-Irun	336 Trobiñu	352 N-622 lotunea	Gasteiz	16:00 – 21:00

2. Data zehatzak.

7.500 kg-tik gorako GMBko ibilgailuek zirkulatzea debekatuta dago, bide publiko hauetan, hemen adierazitako egun eta orduetan:



Ordu-tartea	Datak
17:00-21:00	➤ martxoaren 18a ➤ ekainaren 26a ➤ uztailaren 24a ➤ abenduaren 4a
11:00- 14:00	➤ martxoaren 19a ➤ ekainaren 27a ➤ uztailaren 25a ➤ abenduaren 5a ➤ 2027ko urtarrilaren 2a

Bidea	Izena	Hasierako K.P.	Amaierako K.P.	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	119,5	139,21 Kantabria	Kantabria
N-634	Donostia-San Sebastián/Santander	107	120,690	Kantabria
BI-3724	Lehengo N-634 (Barakaldo-El Bao)	120,690	128,120	Kantabria
BI-734	Lehengo N-634 (El Bao-Kantabria)	128,120	136,140 Kantabria	Kantabria



2.-

Ordu-tartea	Datak
16:00-21:00	➤ martxoaren 22a ➤ azaroaren 1a ➤ abenduaren 6a ➤ abenduaren 8a ➤ 2027ko urtarrilaren 6a

Bidea	Izena	Hasierako K.P.	Amaierako K.P.	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	139,21 Kantabria	119,5	Bilbo
BI-734	Antigua N-634 Lehengo (El Bao-Kantabria)	136,140 Kantabria	128,120	Bilbo
BI-3724	N-634 Lehengo (Barakaldo-El Bao)	128,120	120,690	Bilbo
N-634	Donostia-San Sebastián/Santander	120,690	107	Bilbo

3.-

Ordu-tartea	Datak
17:00-21:00	➤ apirilaren 1a ➤ abuztuaren 14a ➤ urriaren 9a



10:00-15:00	➤ apirilaren 2a ➤ abuztuaren 15a ➤ urriaren 10a
-------------	---

Bidea	Izena	Hasierako KP.	Amaierako KP.	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	119,5	139,21 Kantabria	Kantabria
N-634	Donostia-San Sebastián/Santander	107	120,690	kantabria
BI-3724	N-634 Lehengo (Barakaldo-El Bao)	120,690	128,120	kantabria
BI-734	N-634 Lehengo (El Bao-Kantabria)	128,120	136,140 Kantabria	Kantabria
AP-1	Burgos-Kantaurikoa	83,20	77,20	Burgos
A-1	Madril-Irun	352 N-622 lotunea	336 Trebiñu	Burgos
A-1	Madril-Irun	329 Trebiñu	321 Burgos	Burgos
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	55,77 Bizkaia	23,08 Bizkaia	Gasteiz
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	23,08 Araba	4,9 Araba	Gasteiz



4.-

Ordu-tartea	Datak
17:00-21:00	➤ uztailaren 31a
10:00-15:00	➤ abuztuaren 1a

Bidea	Izena	Hasierako K.P.	Amaierako K.P.	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	119,5	139,21 Kantabria	Kantabria
N-634	Donostia-San Sebastián/Santander	107	136,140 Kantabria	Kantabria
BI-3724	Antigua N-634 (Barakaldo-El Bao)	120,690	128,120	Kantabria
BI-734	Antigua N-634 (El Bao-LP.Cantabria)	128,120	136,140 Kantabria	Kantabria
AP-1	Burgos-Kantaurikoa	83,20	77,20	Burgos
A-1	Madril-Irun	352 N-622 lotunea	336 Trebiñu	Burgos
A-1	Madril-Irun	329 Trebiñu	321 Burgos	Burgos
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	55,77 Bizkaia	23,08 Bizkaia	Gasteiz
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	23,08 Araba	10 Araba	Gasteiz
N-622	Altube/Vitoria-Gasteiz	7,6	4,5	Gasteiz



Bidea	Izena	Hasierako K.P.	Amaierako K.P.	Noranzkoa
	autobia			

5.-

Ordu-tartea	Datak
16:00-21:00	➤ apirilaren 6aa ➤ abuztuaren 31a ➤ urriaren 12a

Bidea	Izena	Hasierako K.P.	Amaierako K.P.	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	139,21 Kantabria	119,5	Bilbo
BI-734	N-634 lehengo (El Bao-Kantabria)	136,140 Kantabria	128,120	Bilbo
BI-3724	N-634 lehengo (Barakaldo-El Bao)	128,120	120,690	Bilbo
N-634	Donostia-San Sebastián/Santander	120,690	107	Bilbo
AP-1	Burgos-Kantaurikoa	77,20	83,20	Gasteiz
A-1	Madril-Irun	336 Trebiñu	352 N-622 lotunea	Gasteiz
A-1	Madril-Irun	321	329	Gasteiz



Bidea	Izena	Hasierako K.P.	Amaierako K.P.	Noranzkoa
		Burgos	Trebiñu	
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	23,08 Bizkaia	55,77 Bizkaia	Bilbao
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	4,9 Araba	23,08 Araba	Bilbao

6.- Murriztapen honek mugaz haraindiko garraioari baino ez dio eragiten.

Ordu-tartea	Datak
22:00-22:00	➤ apirilaren 5etatik 6ra ➤ maiatzaren 7tik 8ra ➤ maiatzaren 13tik 14ra ➤ maiatzaren 24tik 25ra ➤ uztailaren 13tik 14ra ➤ azaroaren 10tik 11ra

BIDEA	IZENA	HASIERAKO KP.	AMAIERAKO KP.	NORANZKOA
AP-8	Kantauriko autobidea	100 Amorebieta	0 Frantziako muga	Behobia
GI-20	Donostiako saihesbidea	15,572 AP-8ko lotunea Aritzeta	0 AP-8ko lotunea Erreterria	Frantzia
A-15	Nafarroa- Gipuzkoa autobia	139,7 Nafarroa	156,560 N-leko	Andoain



BIDEA	IZENA	HASIERAKO KP.	AMAIERAKO KP.	NORANZKOA
			lotunea	
AP-1	Vitoria/Gasteiz- Eibar autobidea	102,700 Etxabarri- Ibiñako ordainlekua	146,150 Maltzagako lotunea AP- 8rekin	Irun
A-1	Madril-Irun	321,4 Burgos	329 Trebiñu	Gasteiz
A-1	Madril-Irun	336 Trebiñu	352 N-622 lotunea	Gasteiz
N-I	Madril-Irun	405,450 Nafarroa (Etzegarate)	454,470 AP-8/AP- 1eko lotunea Lasarte-Oria	Frantzia
GI-636	Errenteria-Irun (lehengo N-I)	0 GI-20 lotunea Pasaia	17,235 Behobia	Frantzia
GI-11	Lasarte- Donostia (lehengo N-I)	0 N-Ieko lotunea	2,523 GI-20 lotunea	Donostia
N-121A	Behobia/ Nafarroa	68,460 Nafarroa	75,020 Behobia	Frantzia



III. ERANSKINA

SALGAI ARRISKUTSUAK

1. Beti eta salbuespenik eskatu beharrik gabe:

Salgaiak	Garraiatzeko baldintzak
- Etxeetarako gas likidotuak, botiletan sartuak nahiz zisternetan, bai banaketa-guneetara eramateko, baita kontsumitzaileei banatzeko ere	ADRn ezarritakoak.
- Gasolindegia hornitzeko gaiak.	ADRn ezarritakoak.
- Errepide-garraioko ibilgailuak hornitzeko erregaia kontsumo propioko zentroetara zuzenduta	ADRn ezarritakoak.
- Trenbide-garraioa hornitzeko erregaia	ADRn ezarritakoak.
- Itsasontziak eta aireontziak hornitzeko helburua duten portuetara eta aireportuetara zuzendutako erregaia.	ADRn ezarritakoak.
- Etxeko berogailuetarako gasolioak.	ADRn ezarritakoak.
- Osasun zentroek funtzionatzeko beharrezkoak dituzten gasak eta partikularrei etxean osasun-laguntza emateko garraiatzen zaizkien gasak, baita, helburu berarekin, banaketa-biltegiara eramaten direnak, baina beti egiaztatu behar da garraioaren helburua hori dela.	ADRn ezarritakoak.

2. Salbuespena eskatu eta justifikatzen bada.

Salgaiak	Garraiatzeko baldintzak
- Industria-guneen funtzionamendurako behar-beharrezkoak diren salgaiak.	ADRn ezarritakoak eta baimena ematerakoan agintzen direnak.
- Osasun-etxeetatik ateratzen diren edo haietan sartzen diren produktuak, 1. atalean jasota ez daudenak.	ADRn ezarritakoak eta baimena ematerakoan agintzen direnak.
- Portuetara zein portuetatik eta	ADRn ezarritakoak eta baimena



Salgaiak	Garraiatzeko baldintzak
aireportuetara zein aireportuetatik garraiatzen diren salgai arriskutsuak, nahitaez debekatutako egunetan zirkulatu behar badute.	ematerakoan agintzen direnak.
- Pirotekniako materialak.	Baimena ematerakoan agintzen direnak.
- Beste edozein gai, salbuespenezko kasuetan garraiatzea nahitaezkoa bada.	Baimena ematerakoan agintzen direnak.

V. ERANSKINA


SALGAI ARRISKUTSUEN IBILBIDEEN SAREA (SAIS)

Salgai arriskutsuen garraioa oro har

BIDEA	IBILBIDEA
AP-8	0 KP (Behobia) / 106 KP (A-8/N-240 El Gallo lotunea)
AP-8 (HMS)	112,840 KP (AP-68 Venta Alta lotunea)/ 129 KP (N-644 Portua lotunea).
A-8	106 KP (AP-8/N-240 El Gallo lotunea)/ 110,5 (A-8/BI-625 Basauri lotunea).
A-8	126,5 KP (A-8 Trapagaran lotunea)/ 139,2 KP (Kantabria)
BI-10 (lehengo A-8)	122,5 (BI-30 Gurutzeta lotunea)/ 126,5 (A-8 Trapagaran lotunea)
BI-30 (lehengo N-637)	8 KP (BI-10 Gurutzeta lotunea) / 28,8 KP (AP-8 Erletxe lotunea)
AP-68	2,2 KP (AP-8 Venta Alta lotunea) / 77,7 KP (Errioxa)
BI-625	382,6 KP (AP-68 lotunea) / 386,6 KP (A-8 lotunea)
N-622	4 KP (Vitoria-Gasteiz) / 23 KP (AP-68 Altube lotunea)
AP-1	77 KP (Burgos) / 83 KP (N-1 Armiñon lotunea)
A-1	321 KP (Burgos) / 329 KP (Trebiñuko muga, Armiñón)
A-1	336 KP (Trebiñuko muga, Iruña Oka) / 391 KP (Nafarroa)



BIDEA	IBILBIDEA
N-I / A-1	405,5 KP (Nafarroa, Etzegarate) / 454 KP (AP-8 lotunea)
AP-1	146,194 KP (AP-8 Eibar lotunea)/ 133 KP (A-636 Bergara lotunea)
AP-636	0,00 KP (N-I Beasain lotunea)/ 22,772 (AP-1 Bergara lotunea)
A-15	139,8 KP (Nafarroa, Berastegi) / 169,314 KP (Astigarraga lotunea).



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SALGAI ARRISKUTSUEN IBILBIDEEN SAREA